

Gure produktuak 175 euroko prezioa du, baina urtean zehar aldatuz joan da izan dituen beherapenen ondorioz.. Gure bezeroak prezio hori ordaintzeko prest daudela uste dugu, nahiz eta hasieran askori garestia iruditu. Izan ere, merezi duela egiaztatzean, merkea irudituko zaie produktu honek eskaintzen dituen zerbitzu guztiengatik. Prezio hau gure kostuak kontuan hartuta finkatu dugu, hau da, kostuak kontuan hartu ditugu eta gero marjin bat atera nahi izan dugu irabaziak lortu ahal izateko. Honetan soilik zentratu gara prezioa finkatzek, izan ere, lehiakiderik ez daukagunez ez ditugu lehiakideen prezioak aztertu behar.

Irabaziak lortzen hasteko 55 bezero inguru behar ditugu. Hau jakin ahal izan dugu puntu hila kalkulatzeko. Puntu hila kalkulatzeko, kostu finkoak, produktuaren prezioa eta saldutako unitate bakoitzeko kostu aldakorrak hartu behar ditugu kontuan. Honako hauek direnak:

- **Kostu finkoak:** 3000€, argi-zerbitzuak eta establezimendu-errenta, besteak beste.
- **Produktuaren prezioa:** 175€
- **Kostu Aldakor Unitarioak:** 120€, unitate bakoitzaren ekoizpenari lotutako zuzeneko eskulana eta salmentengatik komisioak, besteak beste.

**Formula honen bidez kalkulatu da:**

- **Puntu Hila =  $\frac{\text{Kostu finkoak}}{\text{Produktuen Prezio} - \text{Kostu Aldakor Unitarioak}}$**

Beraz, datuak ordezkatzeko horrela geratzen dena:

- Puntu Hila-  $3000 / (175 - 120) = 54,54$  unitateak, biribiltzean **55**.

Horrek esan nahi du enpresak produktuaren 54.54 unitate saldu behar dituela gutxienez, kostu finko eta aldakorrak estaltzeko eta irabaziak lortzen hasteko.

Ordainketa bakarreko diru sarrera motak ditugu, izan ere, behin produktua erosita, ez da berriro harekin lotutako ordainketarik egiten, zerbitzu guztiak haren prezioan sartuta daudelako. Diru sarrera guzti hauek

produktuen salmenten bidez lortzen ditugu, entzungailuak saltzean. Horrek esan nahi du diru-sarrerak gure zerbitzuak bezeroei zuzenean saltzeagatik sortzen direla. Diru-sarrera horiek gure produktua bezeroei salduta lortzen ditugu, kasu honetan posta elektronikoz edo denda fisikoaz egin daitezkenak.

